Euskararen inguruan interesgarriak izan daitezkeen dokumentuak

UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017)
Plan honek unibertsitateko sektore eta arlo guztietan modu inportante batean aurrera egiteko euskararen erabileran balio behar du. Euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanean aurrera jarraitzeko, herritar guztiak, unibertsitateko kide guztiok eroso senti gaitezen hizkuntza batean edo bestean.

UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022)

Horrenbestez, Euskararen III. Plan Gidari hau kokatzen da euskara normalizatzeko UPV/EHU sorreratik egiten ari den bidean; izan ere, erakundearen Estatutuetako lehen artikulu horretan esaten den gisan, helburu ditu, besteak beste, kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, bai eta euskara eta euskal kultura sustatzea ere. Euskararen normalizazioa sustatzeko xede hori hainbat aldiz agertzen da Estatutu horietan. Hasteko, 4. artikuluan, helburuei buruzko atalean, honako hau dago jasota: euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan.